



Arartekoaren 2018R-60-17 Ebazpena, 2018ko irailaren 7koa. Horren bidez, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berrikusteko diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria bukatzea eta horien prestazioak erreklamatzeko ebazten dituzten ebazpenak, enpleguetako bati uko egiteko arrazoi justifikatua dagoelako, hau da, haurdun egotea arrisku obstetrikoko altuarekin.

Aurrekariak

1. Pertsona batek kexa bat aurkeztu du Arartekoan, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazio gisa 9.088,28 euroko zenbatekoa itzultzeko erreklamazioarekin ados ez dagoela-eta.

Kexagilearen arabera, Lanbidek 9.088,28 euro itzultzeko betebeharra aitortu zuen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak 2016ko uztailaren 8an emandako ebazpenaren bitartez. Era berean, 2016ko abenduaren 2ko ebazpen bidez jarritako errekurtsua ezetsi zuen Lanbidek.

Errekurtsoaren ebazpenean aipatu da kexagileak prestazioengatik zegozkion zenbatekoak baino kopuru altuagoak jaso zituela: *"por lo que deberá reintegrar, como establece la resolución recurrida, la diferencia entre lo recibido y lo que realmente debería haber percibido según las previsiones legales"*.

Erreklamazioaren arrazoa 2012ko ekainean zituen enpleguetako batean bajan eman izana da. Kexagilea etxe-langilea zen eta haurdun zegoen une horretan. Haurdunaldiko diabetesa diagnostikatu ondoren haurdunaldiaren jarraipena egin behar izan zioten, eta beraz, ezin izan zuen bere lana gauzatu. Bi etxeetan lan egiten zuen, eta horietariko batean bajan eman zen 2012ko ekainean eta bestean 2012ko abuztuan. Bajan eman zen etxebizitzan egunean lau orduz lan egiten zuen.

Gurutzeta Ospitaleko txostenaren kopia atxiki du, eta bertan jasota dagoenez, haurdunaldiko diabetesa zuen eta 2012ko azaroaren 29an erditu zuen zesarea bitartez.

Lanbidek, 2013ko ekainaren 29ko ebazpenaren bitartez, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea amaitutzat jo zuen, eta ondorioak 2012ko ekainetik aurrera jarri ziren indarrean. Prestazioen erreklamazioa 2012ko ekainetik 2013ko maiatzera arte ordaindutako prestazio guztietarako egin zen. Lanbidek erabaki du zorra ordaintzeko hileroko soldatetik 30 euro ordainduko dituela kexagileak. Horixe da zenbateko aldekoena.

2. Arartekoak, kexa izapidetzea onartuta, gertakari horiei buruzko informazioa eskatu zion Lanbideri, eta alde zuzenetik zenbait gogoeta helarazi zituen; horiek ez





errepikatzearen, geroago azalduko ditugu. Zehazki, honako kontu hauen inguruko informazioa eskatu zuen:

- a) Zein arrazoi dagoen baloratzeko ez zegoela arrazoi justifikaturik lanetako bat lagatzeko, haurdunaldi arriskutsu bat bizi bazuen ere.
 - b) 2012an diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzea adostu zuen ebazpenaren kopia.
 - c) Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriagatik 9.088 euro itzultzeko betebeharrak eragiten dien gaien eta epeen azalpena.
 - d) Aurreko gertakarien inguruan interesgarria izan daitekeen beste edozein gai.
3. Horri erantzute aldera, Lanbidek erakunde horretako zuzendari nagusiaren idatzi bat bidali digu. Lehenengo kontuari dagokionez hauxe jakinarazi du : *“Oraingo kexagileak ez zuenez ezer adierazi, Mungiako Lanbideren Bulegoko Lan-orientazio Zerbitzuak ez zuen justifikatutako arrazoi gisa hartu eta, hori zela eta, (...) andrearen lan-eskaera mantendu zen. Erditzean izandako arazoak, edo horren aurretik izandakoak, justifikatuak izanez gero, lan-eskaera bitartekotzarik gabe uzten da. Kasu honetan ez zen horrelakorik eman eta Lanbiden horren inguruko inolako azalpenik eman gabe, (...) andreak lanari borondatez uko egin zion.*

Lan-eskaera bitartekotzarik gabe uzteko aukera bazuela (eta Lanbidek hori aplikatzen duela, arrazoituta egonez gero) frogatuta gelditu da kexagilearen beraren lan-eskaera bitartekaritza barik etenda utzi zuelako Lanbidek 2012ko abenduaren 4tik 2013ko martxoaren 22ra bitartean.

Aurrekoarekin lotuta, adierazi behar dugu langile gisa bazuela aldi baterako lan- ezintasuna eskatzeko, urriaren 30eko 8/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Bateratuaren 169. artikulua xedatu bezala; eskubide hori gauzatu beharrean, borondatez baja eman zuen lanean.”

Bigarren kontuari dagokionez, Lanbidek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak emandako ebazpenaren kopia atxiki zuen. Ebazpen hori 2013ko ekainaren 29koa da, eta horren bitartez, amaitutzat jo zen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.1.i) artikuluaekin bat eginez. Lanbidek gehitu zuen bizikidetzaren unitateak ez zuela errekurtsorik aurkeztu ez administrazio bidean, ezta bide judizialean ere.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria itzultzeko betebeharrari (9.088,28 euroko zenbatekoan) eragiten dioten kontzeptuei eta aldiei buruz eskatutako azalpenari dagokionez, Lanbideko zuzendari nagusiaren 2016ko uztailaren 8ko ebazpena jakinarazi zuen Lanbidek, eta horren arabera, 9.088,28 euroko zenbatekoa itzuli behar zen (Diru-sarrerak bermatzeko errenta: 6.829,95 euro eta etxebizitzarako prestazio osagarria: 2.258,33 euro). Horrez gain, Lanbidek gehitu zuen ebazpenean bertan jasota dagoela okerreko jasotze hori





(...)(e)k 2012ko ekainaren 30ean enplegurako borondatezko baja eskatu zuelako sortu zela. Aurreko ebazpenak zehaztu zuen oker jasotzearen ondoriozko sortzapen aldia, hau da: 2012/06/30etik 2013/5/31ra arte.

Gogoetak

1. Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea amaitutzat jo zuen artikulua honetan oinarrituz: Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko 23ko 18/2008 Legearen 28.1.i) artikulua, azaroaren 24ko 4/2011 Legean emandako idazkuntzan (18/2008 Legea): *"Aplikatzeko modukoa denean, behin uko egitea, arrazoi justifikaturik gabe, indarreko legediaren arabera egokia den enplegu bati edo diru-sarrerak handitzea ekar lezakeen lan-baldintzen hobekuntza bati"*.

Era berean, Diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzen duen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 56. artikuluan ezarritako aurreikuspena aplikatu du. Horren bitartez itzulketak egiteko betebeharra ezartzen da, eta horren arabera: *"Aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura baten ondorioz edo beste edozein zirkunstantziagatik diru-sarrerak bermatzeko errenta bidegabe jaso dela egiaztatzen bada (...)."*

2. Aurrekarietan jasota dagoen bezala, kexagilea enpleguetako batean bajan eman zen zailtasunak zituelako bi enpleguak mantentzeko haurdun egonik, eta haurdunaldia arriskutsua zelako, haurdunaldiko diabetesa diagnostikatu baitzioten, eta beraz, arrisku obstetrikoko altuko faktorea zuen. Beste enpleguan urte bereko abuztura arte egon zen lanean. Ondorioz, egiaztatu du haurdun zegoela, eta zituen arazoan eta zailtasunen ondorioz hainbat haurdunaldiko kontrol egin behar izan zituela, eta bere bizitza eta bere semearena arriskuan zeudenez zaintza gehiago behar izan zituela, eta horrenbestez, enpleguetako batean bajan eman behar izan zuela.

Lanbidek, baja boluntarioaren berri izan zuenean, prestazioekin amaitzea erabaki zuen eta urte horretan zehar diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria kontzeptuetan ordaindutako zenbatekoak erreklamatzeko prozedura hasi zuen.

Kexagileak ez zuen bukatze ebazpenaren aurkako errekurtsorik egin, baina kontra agertu zen prestazioak erreklamatzeko prozedurari zegokionez. Aurkeztutako alegazioek bere arriskuko haurdunaldiak sortutako zailtasunei erreferentzia egiten zieten.

3. Lanbidek, erakunde honi bidalitako txostenean, bere jokaera mantentzen du, ulertzen duelako kexagileak enplegu eskaera eten beharko lukeela bitartekotzarik gabe, haurdunaldia zela-eta. Gainera, gehitu du kexagileak aldi baterako ezintasuna eskatzeko aukera izan zuela. Hala ere, erantzun horietako bat ere ez da egokia bere egoerarentzat. Kexagileak beste enplegua hilabete batzuk gerora arte mantendu zuen, **eta beraz, bere kasuan aukera horiek ez ziren egingarriak**, enpleguetako





batekin jarraitzean ezinezkoa baitzen laneko bitartekaritza eza eta aldi baterako ezintasuna eskatzea.

Horregatik, Arartekoaren iritziz, kexagilearen erreklamazioak kontuan hartu beharko lirateke, eta **enpleguetako bati uko egiteko justifikatutako arrazoa zegoela** ulertu beharko litzateke; kasu horretan ez legoke diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea bukatzeko arrazoirik. Arartekoaren iritziz, enpleguetako batean baja boluntarioa eskatu baldin bazuen arrisku handiko haurdunaldia izan zuelako izan zen, eta gainera, hori ondoren egiaztatu egin zen, zesarea bidezko esku-hartze kirurgikoa aurrera eramateko beharra sortu baitzen. Egoera horrek argi uzten du kexagileak lan egiteko nahia egiaztatu zuela, enpleguetako bat mantendu baitzuen. Enpleguetako bati uko egitea guztiz justifikatuta zegoen, bere osasun egoera delikatuaz zaintzeko ezinbesteko beharra zuelako.

4. Lanbideak, dituen eskumenak erabiliz, hala ere balioztatu zuen ez zegoela justifikatutako arrazoirik, eta beraz, 18/2008 Legearen 28.1.i) artikuluan ezarritako aurreikuspena aplikatu zuen. Arartekoa ez dago ados Euskal Enplegu Zerbitzuak egindakoarekin, eta Arartekoaren ustez, bazegoen enpleguetako bat uzteko arrazoi justifikatua. Arartekoaren ustez, Lanbideak ez du zuzentasunez neurtu kexagileak, bere egoeraren ondorioz, halabeharrez utzi behar izan zuela enpleguetako bat.

EKren 103. artikuluekin bat eginez: *“Administrazio publikoak objetiboki zerbitzatzen ditu interes orokorrak eta efikazia, hierarkia, deszentralizapen, deskonzentrapen eta koordinaketa oinarritz lege eta Zuzenbidearen mendera osoaren arabera jokatzeko du.”*

Legea eta zuzenbidea guztiz betetzean administrazioaren jarduna kontrolatzea ahalbidetuta dago, zuzenbideko printzipio orokorretarako. Printzipio horiek jakinarazten dute antolamendu juridiko guztia (Kode Zibilaren 1.4. artikulua). Administrazio publikoen jarduketari aplikatu beharreko zuzenbideko printzipio orokorren artean dago **botere publikoen arbitrariotasunaren galarazpen printzipioa**, EKren 9.3. artikulua. Printzipio horretan oinarrituz baloratu behar da inguruabar horietan diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidearekin bukatzeko erabakia koherentea den edo hautabidearen arrazoizko mugak gainditzen dituen, eta ondorioz, antolamendu juridikoa urratzen duen, eta zehatzago adierazita, printzipio hori urratzen duen. Arartekoaren iritziz, ez da koherentea ulertzea ez zegoela justifikatutako arrazoirik enpleguetako bati uko egiteko kexagileak zuen arrisku obstetrikiko altudun haurdunaldia kontuan hartuz, eta ondorioz, erabakitzea ume bat izan berri duen bizikidetzaren unitate batek jasotzen zituen prestazioekin bukatzea eta horien zenbatekoak erreklamatzeko, eta gainera, kontuan hartuz bizikidetzaren unitate horrek beste adingabe bat duela bere kargua.

Horregatik, Arartekoak uste du beharrezkoa dela baita ere adingabearen interes gorenaren eskubidea aplikatzeko betebeharra berariaz aipatzea, gure antolamendu juridikoari buruzko informazioa ematen duena. Hala, bere irismena Arartekoaren apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorrean aztertzen da. *“Politika publikoetan*





adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman”

Agiri horretan berariaz gomendatu zen baita ere hauxe: *“Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteteari eta iraungitzeari buruzko erabakietan, bizikidetza unitatean haurrak daudenean, adingabearen interes nagusia ebaluatu dadila, interes hori lehentasunezkatzat jo dadila, eta neurtu daitezela prestazioen onuradun diren bizikidetza unitatearen kideek (haurren gurasoek edo tutoreek nagusiki) betebeharren bat ez bete izanagatiko haustek.”*

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat eginez, honako gomendio hau egin dugu:

GOMENDIOA

Arartekoak Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu dio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria bukatzea ebatzi zuten ebazpenak berrikusteko. Horien bitartez 9.088,28 euroko zenbatekoa duten prestazioak itzultzeko erreklamatu zen, eta Arartekoak horiek berrikusteko gomendatu du kontuan hartuz Arartekoaren iritziz kasu honetan kexagileak enpleguetako bati uko egiteko arrazoi justifikatua zegoela, arrisku obstetriko altudun haurdunaldi egoeran baitzegoen.

